



TXOSTENA, ARABAKO ERRIOXAKO ETA AIARAKO MAHASTIEN EGOERA

Arabako Errioxako eta Aiara kuadrilletako mahastien egoerari buruzko lehen txosten honek laburpen bat egiten du, lehenik, 2023ko neguari eta 2024ko udaberriari buruz, haien ezaugarri meteorologikoei mahastiaren garapena markatuko baitute kanpaina honetan, izurritei, gaixotasunei eta erreserba hidrikoei dagokienez, eta, ondoren, Arabako mahastiak data horietan duen egoera azaltzen du.

ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

Azaroko mahats bilketaren ondorengo aldian, otsaila oso aurreratuta egon arte, tenperatura leunak eta prezipitaziorik eza izan ziren nagusi. Moreda Araba, Paganos eta Bastida aldeetako batez bestekoa 6,5 °C izan zen urtarrilean eta 8,5 °C otsailean. Eredu horietan azarotik martxora metatutako prezipitazioa 160 mm-tik 283 mm-ra aldatu zen, eta prezipitazio gailurrak 18-27 mm-koak izan ziren abenduaren hasieran eta otsailaren amaieran. Ez da izotz negua izan; eskualdean bost egun baino ez ziren erregistratu, 0 °C-tik beherako tenperaturekin, eta -4,6 °C-ra iritsi zen minimoa urtarrilaren 20an, Bastidan.

Udaberriaren hasieran, martxoan, tenperatura altuak izan ziren nagusi, eta mahats bilketaren ondorengo geldialdi begetatiboaren ostean, tenperaturak igo zirenean, mahatsa kimatzen hasi zen. Martxoaren erdialdean, aldakortasun geografikoa eta bariatatea aurkitu ditugu mahastiaren egoera fenologikoari dagokionez. Mahatsondoa ernamuin puztuko egoeran zegoen (B2) Samaniegon, esaterako; Lapuebla edo Oionen, berriz, hosto hedatuen egoerara iristen zen (E), eta bazirudien mahastia aurreko urteetan baino aurreratutago zetoirela.

Hilabete geroago, apirilaren 18tik 19ra bitarteko goizaldean, erradiazio izozte txiki bat izan zen, -2°C-ko balioekin, eta eremu gehienetan izan zuen eragina, nahiz eta modu desberdinean izan: Bastidan, Mañuetan, Guardian, Eskuernagan, Eltziegion, Navaridasen, Lantziegion, Samaniegon eta Oionen kalteak erregistratu ziren, eta gehiago kaltetu ziren ibarbideak, Ebro ibaitik hurbil zeuden eremuak eta landaketa berriak. Izozte horren ondoren, egun eguzkitsuak izan ziren, eta, egun horietan, adi egon behar izan zen, gerta zitezkeen erreduren aurrean. Oro har, eragin hori % 10-40 artekoa izan zen, baina ez dirudi errendimendu orokorra kolokan egon daitekeenik.

Izozteak pixka bat moteldu zuen landarearen zikloa, baina maiatzaren erdialdetik aurrera berriz ere erritmoa berreskuratu zuen, eta maiatzaren erdialdeko prezipitazioek (30 litro bi egunetan Eltziegion) aukera eman zioten landareari erreserba hidrikoa handitzeko, hurbiltzen ari zen hazkunde esponentzialeko garaiari begira.

Denbora horretan, mahatsondoa ageriko luku, luku bereizi eta lore begi bananduen egoeretatik igaro da, eta orain, txosten hau egin den egunean, ekainaren erdialdean, begi horiek ireki dira lore zuri txikiak agerian utzita; lore horietako askok etorkizunean mahats mordo osatuko duten baiak sortuko dituzte. Loraldiak bi aste inguru irauten du eta azkarra izatea nahi da, behar besteko errendimendua ziurtatu eta heltze homogeenaren itxaropenarekin. Espero daitekeenez, eremu goiztiarrenetan (ekialdean eta hegoaldean)



loraldia amaitzen ari da, eta aleak mamitzen hasten direnean ohikoak diren ale txikiak ikus daitezke. Egun hauetan ikusitakoaren arabera, badirudi lore kimuen garapenak 2023ko kanpaina baino produkzio txikiagoa iragartzen duela.

Maiatzeko eta ekainaren hasierako tenperaturak freskoak eta lehorrak izaten ari dira, eta loraldia moteltzen ari da, baina, aitzitik, ez dute sortzen garai delikatu honetan ager daitekeen beste arazorik, adibidez, lore galtzea. Garai horretan, landareak baliabideak eramaten ditu aihen berdeen garapen begetatibora, eta aleak mamitu arte ez dira baliabide horiek erabiliko baia hazteko. Aldi horretan, nutrienteen ekarpena ur ekarpena baino faktore bereizle handiagoa da.

Izan ere, aihen berde horiek hazten ari direnez, alanbreak birkokatu beharra dago horma sarea duten mahastietan, eta, oro har, puntak mozteko jarduerak egin behar izaten dira. Jarduera horiek, alde batetik, haizearen eragin handiena jasaten duten zonetan aihen berdeak haustetik babesten dituzte, eta, bestetik, landarearen oreka begetatiboa bilatzen dute, nutrizio ekarpena etorkizuneko fruituetara bideratuz.

Hala ere, horiek ez dira mahastian egiten diren jarduera bakarrak; izan ere, maiatzaren hasieratik, inausketa berdeko ohiko eragiketak egin dira, hala nola udaberriko kimaketa eta adarrik altuenak kendu, eta orain puntak mozteko eragiketarekin osatzen dira.

Bestalde, nabarmentzekoa da Arabako Errioxako mahastiek landare osasuneko baldintza bikainak dituztela, egoera atmosferiko onari (tenperatura freskoak eta hezetasunik eza hostoan) eta mahastizainen arretari esker; izan ere, ez dituzte alde batera uzten gaixotasun endemikoak (hala nola zurina) prebenitzen dituzten tratamenduak aplikatzeko nahitaezko datak.

AIARAKO KUADRILLA (ARABAKO TXAKOLINA)

Udazkenean eta neguan tenperatura beroak izan dira Aiarako Kuadrillan. Amurrion 20 °C inguruko balio maximoak izan ziren urtarrilean, eta martxoan batez besteko tenperatura minimoak 6,5 °C izan ziren. Oso gutxitan egon dira balio negatiboak: urtarrilaren 20an -3,9 °C-ra iritsi zen, eta martxoaren 6an -0,4 °C-ra. Horrek ez du eragin negatiborik izan mahastian. Prezipitazioei dagokienez, negua nahiko lehorra izan zen, otsailera arte, horixe izan baitzen hilabete euritsuena, 205 mm-ko prezipitazio metatuarekin. Ondoren, maiatza izan zen (118 mm). Udaberriari izaten ari diren etengabeko euriteei eta tenperatura leunei esker, inguruan endemikoa den gorrina garatzeko baldintza egokiak eman dira. Gaixotasun horren presentzia nabarmena da, eta tratamendu egokiak egiten ari dira, euriek zaildu arren. Uneotan, mahastia loratzen hasia da zonaka, aurreko kanpainetan baino pixka bat beranduago. Bestalde, a priori eta etorkizuneko baldintza meteorologikoen zain, uzta 2023ko kanpainan baino ugariagoa izango dela aurreikusten da.

Guardia, 2024ko ekainaren 14a